

Globalizazioaren aurkako mugimenduen bat-bateko sartzea

***Naroa Cuesta
Imanol Carrillo
Maddi Martínez***

Kazetaritzan lizentziatuak

"Gure mundu honetan, zentro boteretsuz eta mendean harturiko bazter-azoz beteriko mundutxo honetan, ez dago gutxien-gutxienez susmagarri ez den aberastasunik"

Eduardo Galeano
Las venas abiertas de América Latina

I. Zer da globalizazioa?

I.1. Testuingurua

Aditu askoren esanetan, bestelako prozesuak ezkutuan uzteko erabili ohi den hitza da hau. Kapitalismoaren zentzu konnotatiboa isilpean uzteko erabilitako eufemismoa dela esan ohi da.

Globalizazio hitzaren jatorria ez da berria. XIX. eta XX. mendeetako intelektualek aldarrikatu zuten hitz horren erabilera munduaren modernizazio-prozesuarekin batera zetorren *integrazioa* azaltzeko.¹ Industria-iraultzarekin bat, globalizazioa azkartu egin zen eta Europa bilakatu zen munduaren zilbor. Kolonizazio-prozesua abian jarri eta europarrak munduaren jabe egin ziren, ziklo honek herrialde garatuetan protekzionismoaren amaiera suposatu zuen. Aduana-zergak desagertzearekin batera, merkantzia, kapitalak, kultura, informazioa eta pertsonak ere herrialdeetako mugak gainditzen hasi ziren.² Horrela, kanpo-merkataritzak eztanda egin zuen metropolietan.

Ameriketako Estatu Batuek prozesu honetan gaur egun duten garrantzia dudarik gabekoa da. Izan ere, 1941. urtean AEB Bigarren Mundu Gerran sartu ostean, Roosevelt presidentek ikusi zuen posible zela bere ametsa egia bilakatzeko: demokrazia eta merkataritza askea guztiontzat. Horrela, Harry Truman-ek, (Roosevelt-en ondorengoa) 1945eko ekainaren 26an San Frantziskoko konferentzian honako esaldi hau bere egin zuen: «Gizaki libre moduan bizitza duina bermatuko duen mundu bat ikusten has daiteke» Nazio Batuen Erakundearen sorreraren egun berean.

Ezarritako xedea lortzeko ezinbestekoa zen mundu mailako merkatu bakarra ahalbidetzen duen marko erregulatuak. Bretton Woods-eko konferentziak (1944) ahalbidetu zuen hori, Nazioarteko Diru Funtsa eta GATT erakundearen sorrerarekin.

I.2. Globalizazioaren ezaugarriak. Teoriak

1960. urte aldera erabiltzen hasi zen globalizazio hitza beste adiera zabalago batekin. Garai horietan estatuaren barne- eta kanpo-arazoak bereizten ziren baina munduko estatuen arteko interdependentsia aurrera zihoan. Estatu sozialistaren kolapsoaren ostean, eta kapitalismoaren indarraren sendotzearekin batera, globalizazioaren kontzientzia publikoa izugarri handitu zen. Gehienbat, 90eko hamarkadan Berlingo harresia erori ostean.

¹ Karl Marx-ek, Saint-Simon soziologoak eta MacKinder geopolitikako ikertzaileak erabili zuten hitz hau XIX. mendearen bukaeran hasitako prozesu horiek azaldu nahian.

² XIX. mendearen amaieran 100 milioi immigrante zeudela uste da.

Azken bi hamarkadetan, abian zegoen joera historikoa bizkortu eta tinkotu egin da. Egunotan ekonomiak duen nazioz gaindiko dinamika tinkoa da, eta ondorioz, ekonomialari asko mundu-ekonomia bakarrez mintzo dira. Ekonomia-globalizazioaren errealitatea egiaztatzeko, estatuek nazio-ekonomietan duten kontrola eta administratzeko ahalmenaren galera erabiltzen dira. Gaur egun muga tradizionalak baino harago doazen egitura globalak sortu dira politikan, ekonomian eta kultura-harremanetan. Nolanahi ere, globalizazioa prozesu ekonomikoa da beste ororen gainetik, nahiz eta prozesuan beste gizarte-esparru guztiak ere inplikaturik agertu diren. Egun, globalizazioaren inguruan klasikotzat hartzen diren hiru ikuspegi teoriko ditugu:

- **Inperialismoaren teoria.** Lenin-ek XX. mendearen hasieran proposatutako ideian du oinarria. Inperialismoa kapitalismoaren bilakaeraren azken fasetzat hartzen da. Konkista, kolonizazioa eta, azkenik, beste herrialde batzuen kontrol ekonomikoa dira bilakabide honen urratsak. Herrialde aberatsen eta pobreen arteko arraila sakondu egiten da, eta egoera aldatzeko mundu-iraultza baino ez da gelditzen.
- **Dependentziaren teoria.** Lationamerikako herrialdeen azpigarapena barne-faktoreetan baino gehiago kanpoko hertsapenaren ondorioa dela adierazten du. Hainbat bertsio ageri dira hemen. Batetik, azpigarapena itzulezina dela diotenak daude, metropoli kapitalisten eta haien menpeko herrialdeen artean, baliabide lokalen ustiapena eta soberakinen erdiespena atzerriko kapitalaren esku utziz. Bestetik, "menpeko garapena" posible ikusten dutenak daude. Esate baterako, Amerikako herrialde industrializatu berriak (Brasil eta Mexiko) eta "Asiako tigreak" deritzenak (Taiwan, Hego Korea eta Hong Kong).
- **Mundu-sistemaren teoria.** Immanuel Wallerstein-ek azken urteotan proposatutakoa. Historian zehar hiru estadio funtsezko bereizi ditu: "minisistemen estadioa" (ekonomikoki buruaskiak diren unitateak), "mundu-inperioak" (koordinazio ekonomikoa, administrazio bortitza, zerga zorrotzak) eta "mundu-sistemaren garaia" XVI. mendean sortua kapitalismoaren sorrerarekin bat. Erdigunetik abiatuta, kapitalismoa erdi-periferiara eta periferiara hedatu da.

I.3. Globalizazioa vs integrazioa

Gaur egun onartu egiten da, globalizazio-prozesuak garrantzia izan arren, globalizazio ekonomikoa ez dela ez modu berean ezta indar berarekin ezartzen leku guztietan

Beraz, zer dela-eta finkatu eta hedatu da horren finko ekonomia-globalizazioaren ideia? Globalizazio ekonomikoaren ideia ez legoke hain zabaldua baldin eta errealitatea deskribatzeko tresna teoriko hutsa balitz. Baina, bada gehiago: azkenaldian pentsamendu bakar bihurtu den neoliberalismoaren ikur bihurtu da. Izan ere, ekonomia-globalizazioarekin estatuak ekonomia-aldagaien eta -prozesuen gaineko kontrola galtzean, estatuaren esku-hartzeak bere funtsa galdu bide du ekonomian. Aitzakia aparta, finantza-desarauketa, pribatizazioak, gastu sozialaren murrizketa eta merkatuen irekitasuna, hots, neoliberalismoaren ekonomia-politikaren neurri zorrotzak, eta estatuaren alboratzea zirikatzeak. Datu askok bermatzen dute librekanbismoaren teoria zabaltzea. Esate baterako, azkeneko hamabost urteetan, kapitalen fusioa zazpi bider handitu egin da. Kapital horiek galbaherik gabe mugi daitezke mundu osoan zehar, deslokalizazio-prozesuak

aurrera jarraitzen du... baina aipatu beharra dago, orobat, horrelako mugimendu gehienak espekulatiboak baino ez direla.³

I.4. Globalisten erantzuna

Interpretazio globalistaren ikuspuntutik, prozesu hau gizarte-antolaketa modernoaren estruktura aldaketa sakonago batean datza. Aldaketa horiek antzeman daitezke honako faktore hauen bidez: nazioz gaindiko korporazioen ugalketa, mundu mailako finantza-merkatuen sorrera, herri-kulturen zabalkundea...

Espazio- eta denbora-hertsadurek talka egiten dutenean interakzio sozialen berezko moldeetan, globalizazioak antolaketa molde berriak ahalbidetzen ditu. Antolaketa berri horiek nazioz gaindikoak izan ohi dira. Eraldaketa honek ordena ekonomiko, politiko eta sozial berria dakar berarekin. Mundua nolabaiteko batasunerantz zuzentzen den prozesuen multzo modura defini daiteke globalizazioa. (Robertson, 1992)

I.5. Gaurko ideia globalaren zergatia

Bretton Woods-eko akordioetan parte hartu zutenek 70eko hamarkadako krisiaren osteko eraldaketa garrantzitsuak ezagutu dituzte. 1971. urtean Richard Nixon-ek dolarraren eta errearen arteko bihurtasun horrekin amaitu eta amets amerikarraren hedapenaren muga gaindiezinak nabarmendu egin ziren. Eraldaketa nabariak izan ziren horiek eta ideologia berri baten oinarri bihurtu ziren, zeina 80ko hamarkadan eskuin berri baten sorrerarekin gailendu baitzen (Thatcher eta Reagan-en eskutik). Finantza-ekonomia honek espekulazioan du oinarria. AEBko momentuko agintariak mundu berriaren ordena birdefinitzen saiatu ziren "*There is no alternative*" lemapean. Horrela heldu ziren pribatizazioak, liberalizazioak eta desarautzeak. Haien esanetan, «merkatuaren esku ikusezinak beharizan sozialei irtenbidea emango zien, merkatu perfektuaren eginkizunak betez». Bestetik, ekoizpen-sektore berriak sortu ziren (informatika, genetika...) mundu mailako ekoizpen-eremu berria sortuz.

II. Zergatik sortu dira globalizazioaren aurkako mugimenduak?

II.1. Terminologiarekin arazoak oraingoan ere

Aditu askok alterglobalizazio hitza erabiltzen dute gizarte-mugimendu hau deskribatzerako orduan. Beste askok, aldiz, antiglobalizazioa edo globalizazioaren aurkakoa. Bigarren aukeraren alde egingo dugu hemen. Egia da gizarte-mugimendu honen barnean badaudela "bestelako globalizazioaren" aldeko jarraitzaile ugari esate baterako, esku-bide eta askatasunak globalizatzearen aldekoak. Baina, aurretik ikusi dugun moduan "globalizazio" hitza bestelako konnotazio negatiboak bereganatutako terminoak hobesteko erabili izan da, kapitalismoa kasu. Beraz, kapitalismoaren aurkako jarrera azaltzen duen inork ez du alter-kapitalistatzat hartuko bere burua.

Globalizazioak, azken finean, aurretik aipatutako "hirukotearen" bermeak baino ez ditu ziurtatzen, beste erregioak alde batera utziz. Halaber, hainbestetan aipatu den liberalizazio ekonomiko hori guztiz asimetrikoa da. Horren adibide garbia

³ Kapital espekulatiboak kapital errealek baino 60 bider gehiago mugitu dira azken 5 urteetan. "Paraiso fiscal a escala planetaria" deituriko terminoari eusteko datuak dira hauek (Taibo, 2005).

dira Europar Batasunak aurrera daraman NPBk (Nekazaritza Politika Bateratua) hartutako babes neurriak, bloke ekonomiko lehiakorrenetan politika protekzionistak mantenduz zenbait arlotan.

Carlos Taibo irakaslearen esanetan, "20/80 gizartea" terminoa egikaritzea izango da politika ekonomiko horren jomuga. Munduko biztanleen % 20 gero eta hobeto biziko den bitartean, beste % 80ak dituen baldintzek txarrera egingo dute.

Globalizazioaren garapenean iraultza teknologikoak berebiziko garrantzia izan du, gehienbat telekomunikazioen alorrean. Internet-ek, era berean, informazioaren ia mugarik gabeko joan-etorria ahalbidetu du. Bestetik, telebistaren hedapen izugarriak informazioaren mundu mailako espazio bat ahalbidetu du. Betiere, ekonomikoki indartsuenek bereganatu dute ekoizteko eta banatzeko ahalmena.

II.2. Munduaren jabe berriak

Ekonomia Berria deiturikoaren oinarriak dira arestian aipatutakoak. Horiez gain, aipatu beharra dago enpresa transnazionalak bereganatutako papera munduko ordena berri honetan. Deslokalizazio-prozesuen bidez, produkzio-kostuak txikiagoak diren herrialdeetan ezartzen dira, atzerriko inbertsio zuzenaren bitartez. Kontrol politikorik ezak ahalbidetu du aktore hauek "munduaren jabe berriak"⁴ bilakatu izana. Estatuak gero eta zeresan gutxiago dauka munduko mapa berri honetan, eta norbanakoak inoiz baino babesgabetuagotentzen dira.

Finantza-mugimenduen globalizazioa nazioz gaindiko merkataritza baino gehiago handitu egin da aberastasun errealik gabe, hau da, espekulazioaren bitartez. Autore askoren ustez horixe da globalizazioaren ezaugarririk funtsezkoena.

II.3. Sorreraren arrazoi zehatzagoak

- **Sobiet Batasunaren sistemaren gainbehera.** Kapitalismo liberalaren erreferente alternatiboa zen ezkerreko ideologia zuten askorentzat. Gerra Hotzean bizi izandako blokeen arteko aurkakotasuna amaitu, eta AEB mundu mailako superpotentzia bakarra bilakatu zen.
- **Kapitalaren interesen gorpuztea eta giza eskubideen gainbehera.** "Globalizazio kapitalistak" ugaritu eta indartutako transnazionalak bigarren maila batean utzi zituzten giza eskubideak. "20/80 gizartea" oztokatzen saiatu beharra dago; izan ere, gizadiaren 4/5 baztertuta geratzen baita. "Pentsamendu bakarraren" aurka zerbait egitea ezinbestekoa da.
- **Gizartearen eta estatuaren arteko harremanen disoluzioa.** Estatu berri baten agerpena bizi dugu. Sare-estatu deitu izan dena eta itun estrategiko anitzen bila dagoena etengabe. Era berean, gizartetik aldentzen doan estatu bat daukagu gaurkoa. Globalizazioaren aurkako mugimenduek egitura globala zein lokala erkatu dituzte euren eskakizunetan. Bestetik, herrialde garatuetako itxurazko demokrazia horiek eztabaida politikoa sartzeko bide gisa jaio direla esan daiteke. Izan ere, gaur egungo demokrazietan erabakirik funtsezkoenak gobernariaren ahalmenetatik at geratzen dira, eta horrela herriaren bozaren ahalmenetatik at.

⁴ Munduko jabe berria: Munduko hiru dirudunen jabetza osoa 48 herrialde pobreenen BPGren berdina da.

Gainera, botere publikoek esku-hartzea murrizturik ikusi dute alderdi ekonomiko eta sozialean.

Daniel Bell-en esaerak ongi azaltzen du arazoa: «nazio-estatu txikiak da honezkeroko arazo handiak konpontzeko eta handiegia arazo txikiak konpontzeko». Nazio-estatuaren krisiak ez du esan nahi estatua desagertzeaz dagoenik. Izan ere, tresna bakarra da merkatu globalen azpiegitura politikoei trinkotasun minimoa emateko.

- **Langile-klasearen garrantzi-galtzea Mendebaldeko herrialdeetan.** Gizarte-gatazka baretu egin da azkeneko hamarkadetan. Sindikatuetakoa langileen kopuruak behera egin du, eta gero eta greba gutxiago egiten dira. Halaber, soldatapeko lanaren baldintzak gogortu egin dira mundu mailan. Egoera horren aurrean historikoki protesta-mugimenduak antolatu izan dituztenek deuseztatu egin dute borrokaren bidea, eta euren *erantzukizunak* ahaztu. Azken urteotan ezker tradizionalaren gabeziak ageriagoak izan dira. Sistemaren barnean ezarritako alderdiak bihurtu dira gehienak, eta kapitalismoak ezartzen duen logika jada ez dute zalantzan jartzen. Sindikatuek, halaber, sistemarekin bat egin dute. Horietako asko, diru publikorik gabe, ez lirateke existitu ere egingo. Bestetik, NGEEak ditugu, gobernuz kanpoko erakundeak, aurreikusten zitzaizkien itzarobideak ez dituzte bete.
- **Gutxiengoen (etniko, sozial, nazionalen...) eskubideak bermatzea**

III. Globalizazioaren aurkako mugimenduaren ezaugarriak

III.1. Aurrekariak eta kronologia. Akzio globala

Autore askoren aburuz, globalizazio kapitalistaren aurkako mugimenduen sorrera-data MME⁵ biltzarraren aurka Seattlelen⁶ egindako protestak dira. Beste autore batzuek hiru puntu aipatzen dituzte aurrekariak zein diren azaltzeko.

- **1968ko maiatza.** Orduko arazoei irtenbidea bilatzeko erantzun berdintsua erabili zen. Hala ere, 68ko mugimenduak izandako gizarte-babesa eta ezker tradizionalaren garrantzia ez dira orain nabariak. Orduan mugimendua kulturala eta autoritate-izaeraren kontrakoa izan bazen ere, gaurkoak izaera etiko morala dauka eta eskubideen aldarrikapenean datza. Horretaz gain, 68an berdintasuna bilatzen zen eta gaur egun, berriz, kultur aniztasuna.
- **Gizarte-mugimendu berrien sorrera.** Feminismoa, ekologismoa, bakezaletasuna... daude mugimendu honen sustraian. M. Lemite-ren esanetan: «Loturak ez dira argiak, hala ere, errealak eta garrantzitsuak dira».
- **Txiapas 1994.** Zapatismoa ez zaio soilik herriari zuzentzen, gizarteari baizik. Ez du boterea eskuratzea helburu, baztertuen integrazioa baizik.

Mugimendu honen ekintzak hiru ziklotan bana ditzakegu. Tilly-k eta Tarrow-ek⁷ azaldu zuten moduan protesta-zikloa: "Gizarte-sisteman dauden gatazkak

⁵ Munduko Merkataritza Erakundea

⁶ 1999an MMEk egindako biltzarraren aurkako manifestaldian 500.000 pertsona abildu ziren. 500 atxilotu egon ziren eta "Ronda del Milenio" izeneko ekimena bertan bera geratu zen, mugimenduaren arrakasta aipatuena izanik.

indartzearen ondorioz, akzio kolektibo baten areagotzea. Parte-hartze arautua, ez antolatua, disidentea eta autoritatearen arteko interakzioan dagoena, hiru emaitza ekar ditzake: erreforma, errepresioa edo iraultza."

80ko hamarkadaren hasieran ziklo honen lehen pausoak eman ziren, **akzio globaleko ziklo** deritzona. Ideologia desberdinetako erreferenteak batu ziren erresistentzia egonkor batean. Sobiet Batasunaren sistema apurtzean kapitalismo liberalaren ereduaren aurkako erantzuna bilatu zen. Puntu honetan, GKEen fenomenoak aipagarriak izan ziren.

Ziklo global honen barruan azpizikloak ager daitezke:

- **Mugimenduaren ernatze-fasea.** 80ko hamarkadaren amaieratik 1992ra arte. Europan kokatuta daude, jarraitzaile gutxi baina bitartekari globalak aurkari dituzte. Ez dago aktibista-sare handirik eta ez dute Internet komunikazio tresnatzat. Nazioarteko Biltzarren aurkako ekintzak burutu zituzten.
- **Biltzar paraleloa: 1992tik 1999ra.** GKEetako kide kritikoek mugimendua ezagutarazi zuten. NBEren biltzarren aurkako mugimenduak areagotu ziren, batzar paraleloen egitura sortuz. Orduan ere, lehenengo nazioarteko kanpainak agertu ziren, hala nola "50 años bastan" eta NDFren eta MBren aurkako biltzarra. Horrekin batera, beste mugimendu batzuen erreformak heldu ziren, besteak beste, sindikatuak, nekazari-mugimenduak eta mugimendu kristauak. Fase honen punturik gorena Seattlen izandako publikotasun ageria izan zen.
- **Protesta-zikloa:** 1999tik 2002ra. Masa-komunikabideek bere egin zuten aktore berriaren agerbidea. Kontrako gailur⁸ ugariren ostean globalizazioaren aurkako mugimenduaren ezaugarriak finkatzen dira: deitutako mobilizazioetan parte-hartzea suspertzea, koordinazio telematikoak, eztabaida eta kale-ekintza bateratzea. Protestaren internazionalizazioa egituratu zen.
- **Lokalera bueltatzea:** 2001ean Genoako errepresio bortitzaren osteko fasea da. Mugimendu hauen aurreko fasean lortutako nazioz gairik gabea murriztu eta *auzo-ekintza* berreskuratu zen. Hedabideek mugimendua kriminalizatu ostean, euren ekintzen nondik norakoak berrantolatu behar izan zituzten. Proposamen paraleloen biltzarrak garrantzia hartu zuen eta Porto Alegreko⁹ gizarte-foroa da aitzindari nagusia. Europako mugak gairitu eta mundu mailako aktibisten integrazioa bultzatzen du.

III.2. Antolamendua

Mugimendu honen barruan era askotako jendea dago. Antolakuntza zurruna duten taldeak, egitura zehatzik gabeko sareak eta beren kontura aritzen diren pertsonak.

⁷ Tilly, C, (1968): " From mobilization to revolution", New York. Tarrow, S; (1997): " El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y política", Madrid.

⁸ Seattle 1999, Praga 2000, Genua 2001.

⁹ Brasilgo hegoaldeko hiria, Langileen Alderdia gobernuan dago bertan. Ezkerreko erakundeek mundu mailako sinbolo bihurtu da. Hiri honek aurrekontu parte-hartzaile garrantzitsuena dauka eta bertan egin zen lehenengo munduko gizarte-foroa.

Globalizazioaren aurkako mugimenduen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat sare-egitura da. Taldekide guztien iritzia kontuan hartzen da hierarkiarik gabeko komunikazioa erraztuz. Pertsona bakoitzari berezko indarra ematen zaio, ideologia komun baten gainetik.

Izaera deszentralizatua eta horizontalki koordinatutako ekintzak gauzatzen dituzte.

Oro har, mugimendu honek dituen bi adar nagusiak aipatuko ditugu. Alde batetik, adar **erreformazalea** dago; haren izaera Porto Alegreko Munduko Gizarte Foroan nagusitu zen. Adar hau eredu ekonomikoa aldatuko duen gutxienekoen programa bat prestatzen ari da 2001.etik. Era berean, alor honetan lan egiten duten erakundeentzat oso inportantea da GKEen lan-ildoak.

Beste alde batetik, **protesta-adarra** dago. Kasu honetan Herrien Akzio Globala da adierazgarri nagusia eta antikapitalistatza jotzen dute euren burua.

Bi adar horiek elkar osatzen dute. Izan ere, bigarren adarrak egiten duen zaratari esker, lehenengoei bidea errazten die helburu berdintsuak dituzten heinean bide legitimoen bidez lortu ahal izateko. Mugimendu hauen antolakuntza era honetakoa da:

- **GKEak:** mugimenduaren barruan diren erakunde gehienak gobernuz kanpokoak dira, nahiz eta batzuek besteek baino parte-hartze handiagoa izan. Hauen adibideak dira, adibidez, Greenpeace, Amnistia International edota Human Rights Watch.
- **Kolektiboak:** hauek kontrabiltzar garaietan eratu ohi dira, plataformetan. Kasu batzuetan kanpaina bereziak egiten dituzte. Talde hauen barnean oso ezaugarri desberdinak dituzten taldeak/pertsonak egoten dira.
- **Helbide elektronikoak, weblogak eta foroak** erabiltzen dira.

Interneti esker pertsona asko bildu izan ditu globalizazioaren aurkako mugimenduak oso denbora-epe laburrean. Antolatzen diren ekintzen berri ematen duten orrialde ugari dago, eta horiei esker, munduko edozein lurraldetan bizi den pertsonak azken protesta-datak ezagutu ditzake.

III.3. Egitura "globala"

1972an René Dubos ekologista eta biologoak honako hau esan zuen: «globalean pentsatu eta esparru lokalean ekin». Orduetik aurrera asko hedatu da ideia hori. *Glokal* terminoa globalaren eta lokalaren arteko batuketa baino gehiago da.

Ekintza globalek sustrai lokala behar dute bizirauteko. Eguneroko ekintzak eta auzolana dira mugimendu osoaren oinarri.

III.4. Aldarrikapenak

Mugimendu honek aldaketak izan ditu bere ibilbide osoan zehar. Balio postmaterialistak ongi erratuta daude globalizazioaren aurkako ideietan. Pobrezia, prekaritate eta esplotazioaren desagerpena eskatzearekin batera, umeak lan egitearen kontra eta immigranteen eskubideen alde ere agertzen dira. Horretaz gain, marken aurkako kanpainak ere egin izan dituzte.

Ekonomia autogestionatuaren alde, gizarte-zerbitzuak hobetzearen alde eta unibertsalizazioaren alde daude.

Aurrekoarekin batera, kanpo-zorra deuseztatzea eta bidezko merkataritza aldarrikatzen dituzte, eta kanpaina asko egin izan dituzte aldarrikapenok ezagutarazteko. Elkartasunari dagokionez, kanpainak antolatzen dituzte herrialde txiroetako biztanleen eskubideen alde. Boterearen deszentralizazioa, instituzioen demokratizazioa eta komunikabideen demokratizazio-prozesuak eskatzen dituzte.

Halaber, elikagai transgeniko eta botika-patenteen kontra daude. Emakumeen jazarpen historikoaren aurka aldarrikapenak egiten dituzte. Feminismo erradikalak garrantzia dauka mugimendu honetan eta patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurkako borroka bateratua bultzatzen dute.

Beste alde batetik, gutxiengoaren defentsan agertzen dira: immigranteen eskubideak babestuz eta arrazakeria eta xenofobia gaitzetsiz. Horrekin batera, egungo kartzela-sistema deuseztatu eta presoaren eskubideak bermatzea eskatzen dute. Azkenik, kulturaren pribatizazioaren eta jabegoeskubideen aurka ere badaude.

III.5. Mugimenduaren izen propioak

Globalizazioaren aurkako mugimenduaren ezaugarria da buruen ihesia eta hierarkien ezeztapena. Erabakiak batzarretan hartzen dira eta ez da zuzendaririk egoten, denak maila berean egoteko. Nahiz eta mugimenduaren ordezkari ofizialik ez egon, badira erreferente diren aktibista eta intelektualak. Horien artean honako hauek ditugu. Hala ere, ez dira bakarrak.

WALDEN BELLO

Ekonomia globalaren demokratizatorako Focus on the Global South institutuaren zuzendari exekutiboa da. Nobel Sari alternatiboa jaso zuen bere lanagatik.

JOSÉ BOVÉ

Globalizazio alternatiboaren aldeko munduko pertsonaia ospetsuenetakoa da. Frantziako nekazari-sindikalismoan hasita, desobedientzia zibileko ekimenei esker lortu du ospea, batik bat otordu lasterreko jatetxeen kontra egindakoei esker (McDonald's buruan).

ATTAC mugimenduaren fundatzailea ere bada. Frantziako 2007ko hauteskundeetan hautagai aurkeztu zuen bere burua. Lehenengo fasean botoen % 1,32 eskuratu zuen.

B E R N A R D

C A S S E N

Globalizazioaren aurkako mugimenduaren ideologo nagusietako bat da. 1998an

ATTAC (Acción par la Tasación de Transacciones y Ayuda al Ciudadano) sortu zuen eta hango lehendakaria da. Erakunde hori Tobin tasa ezartzearen alde dago.

IV. Biolentziaren auzia

Globalizazioaren aurkako mugimenduko partaideen artean egon badago biolentzia erabiltzen duenik, baina gutxiengoa dira. Gehienek ekintza biolento zuzenak gaitzesten dituzte, hala ere, poliziak deituriko "*Black Block*" nagusia dela dirudi hedabideek gauzatu izan duten kriminalizazioaren ostean.

Bestetik, esan beharra dago biolentzia mota guztiak ez direla berdinak. Hilketa bat eta erakusleihu bat apurtzea ezin dira balantza berean erkatu. Globalizazioaren aurkako mugimenduaren barnean dauden talde batzuek erabilitako biolentzia gauza materialen aurkakoa izan da beti.

IV.1. Errepresioaren erabilera

Azken urteetan negoziazioa alde batera utzi, eta poliziak zuzendutako ekintza zuzena hedatzen ari da. Manifestaldietako partaideen aurkako erasoak gero eta gehiago eta bortitzagoak izan dira. Hala ere, 1999an, Seattlen gertatutakoaren inguruan zabalduetako irudiak direla-eta, asko kritikatu zen poliziaren jarrera bortitza.

Metodo errepresiboen gorakada nabaria izan zen hamarkada horren hasierako ekintzetan. Manifestazioetan erasotutako pertsonen kexuei esker, poliziaren kontrako karguak aurkeztu izan dira. Hala ere, Genoan¹⁰ hil zuten Carlo Giulianiren kasua dela-eta, ez dago oraindik kondenaturik.

Genoako gertaeren ostean, globalizazioaren aurkako mugimenduko partaideen arteko bereizketa egiten saiatu zen polizia. Orduetik, mugimendu honen izaera nolakoa den azaltzeko nabarmendu egiten den kalifikatiboa "ustezkoa" da. Koloretan banatu zituzten manifestariak.

<i>Bloke gorria</i>	Jende baketsua. Ikusgarriak izatea bilatzen dute batzarraren lanak atzeratuz, boikotatuz edota ekidinez.
<i>Bloke oria</i>	<i>Tute bianche</i> edota <i>disobbedientia</i> . Ekintza zuzenak eta desobedientzia zibila bilatzen dute.
<i>Bloke urdina</i>	Zentro sozial erradikalenak kokatzen dira hemen, ekintza zuzenak, bortitzak eta probokatzailak bilatzen dituzte.
<i>Bloke beltza</i>	Ordena publikoa apurtzea helburu duen blokea.

"Ustezko" horri poliziaren hainbat analisi gehitu zitzaizkion. Informe berri horien arabera, globalizazioaren aurkako mugimendua arriskutsu eta biolentotzat jo zuten bere osotasunean.

¹⁰ Poliziaren esanetan «ez da manifestazio bat izan besterik gabe, lurraren okupazioaren kasua izan da, eta ondorioz ez zen ordena publikoaren arazoa, hiri-gerrilla baten aurrean geunden. Horregatik poliziaren esku-hartzea baimentzea besterik ezin genuen egin».

V. Teknologia berrien garrantzia

Globalizazioak mundu mediatikoaren bateratzea ekarri du, baita kontrako prozesua ere. Izan ere, Internetek aurretik hedabideetara heltzeko aukerarik ez zuten askori bertan aritzeko ahalmena eman die. Globalizazioaren aurkako mugimenduak haren aurrekariak izan daitezkeen beste mugimendu batzuek baino garrantzi handiagoa eman die teknologia berriek bermatzen dituzten aukerei.

Munduan dauden komunikabide erraldoiek mugimendu hauen fenomenoari buruz aritzen dira soilik gailur alternatibo edo foroek eskaintzen dituzten irudi ikusgarriak lortzen dituztenean. Egunoroko lanak, aldiz, ez du ikusgarritasunik.

V.1. Hedabide alternatiboen sorrera

Egoera zein den ikusirik, globalizazioaren aurkako mugimenduek estrategia propioak eratu dituzte komunikabideen inguruan. Ohiko hedabideak erabiltzea baino gehiago hedabide propio eta alternatiboak sortzea bilatu dute. 2003an Porto Alegren antolatutako Gizarte Foroan milaka proposamen batu zituen idazkia egin zen komunikazioaren inguruan. Bost puntu nagusitan batu daitezke horiek:

- ***Ikus-entzunezkoen Foro Mundiala.*** Alor honen inguruan dihardutenak bildu zituen ekimen honek Porto Alegren. Koordinatutako nazioarteko ekintza proposatu zuten gizarte zibilak zein gobernuak mundu mailako ikus-entzunezkoen benetako demokrazia¹¹ lortu ahal izateko.
- ***CRIS¹² kanpaina.*** Mundu mailako komunikazio-mugimenduaren garapenean ari diren elkarteak¹³ biltzen dira bertan. Informazioaren Gizartearen Munduko Biltzarraren ordezkotako mugimendua izateko jaio zen. Kanpaina honen helbururik behinenak bi dira: printzipio etikoak eta deontologikoak biltzen dituen deklarazioa, eta Akzio Plana.
- ***Media Watch Global.*** *Le Monde Diplomatique*-k aurkeztutako proposamena. *Onbudsmen* figuran dauka oinarria, hau da, kazetaritza, masa-kultura eta publizitatearen gaineko kontrola ezartzea du helburu. Izatez, gero eta ahulagoak dira hiru esparru hauetan ezinbestekoa den bereizketa.
- ***Sare alternatiboan gorpuztea.*** Teknologia klasikoak (inprenta, ikus-entzunezkoa) eta berriak (Internet, digitalizazioa) uztartzen dituzte. ALAI¹⁴ proiektua edo EZLNek aurrera daraman kanpaina mediatikoa lirateke sare hauen adibide aipagarrienak.
- ***Iniziatiba telematikoak.*** Globalizazioaren aurkako mugimenduaren identitate-sinbolo bihurtu dira. Besteak beste: kanpaina konkretuen inguruko web guneak,

¹¹ Bost puntu hauetan laburtu daiteke: hedabideen bitartez demokrazia parte-hartzailea sustatzea, produkzio- eta banatze-sistema alternatiboak sortzea, multikulturalitatea bermatzea (berdintasuna eta desberdintasunak uztartuz), jakintza kolektiboari ekin eta gizarte globalaren sorrera parte-hartzaile aktiboak bihurtzea.

¹² CRIS: Communication Rights for de Information Society

¹³ 2003ko abenduan Genevan eta 2005eko udaberrian Tunisian bildutakoa.

¹⁴ ALAI: Agencia Latinoamericana de Información. Komunikazioa "behetik" demokratizatzea du helburu.

ziberaktibismoa, erabiltzailea "kazetari" eta sortzaile bihurtu dituzten web-blogak... Denbora-espazio muga guztiak gaindituz momentuko hedapena lortzen dute hauek.

VI. Ondorioak

VI.1. Nola neurtu mugimenduaren arrakasta?

Euren programan ezarritako helbururik ez dute lortu, baina garrantzi, partaide eta mobilizazio gehiago eta ikusgarriagoak izan eta gauzatu dituzte azken urteotan. Hala ere, Irakeko gerraren aurkako mugimenduak mundu osoan barrena burututako ekintzen gaitetik, gerrak aurrera dirau. Beste alde batetik, boteretsuen biltzarretara heltzea gero eta zailagoa bihurtu dute indar polizialek, globalizazioaren aurkako mugimendua ez bertaratzeko. Gero eta traba gehiago jartzen dituzte, eta mugimenduaren arrakastaren isla izan daiteke.

Bestetik, NDF eta MBren barneko partaide batzuek irizpide kritiko samurrak egin dituzte: «Zinez sentitzen dugu hobeto egin ezin izatea», NDFko ordezkari batek esanda.

Globalizazioaren aurkako mugimenduak aztertu dituzten autoreen esanetan, AMI¹⁵ akordioaren inguruan lortu dute mugimendu horiek arrakasta gehien. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (OCDE) barnean 1998. urtean isilean eztabaidatutako akordioa izan zen AMI. MMEko orduko zuzendari orokorrak, Renato Ruggierok, honela definitu zuen: «Mundu mailako ekonomia bateratu baten Konstituzioa». Akordio horrek ez zuen argia ikusi, hala ere, horrela izan balitz, enpresa transnationalek atzerriko herrialdeetan bertako enpresek dituzten eskubide berdinak izango zituzketen. Globalizazioaren aurkako mugimenduaren partaide asko bildu ziren Genevan akordio horren aurka zeudela adierazteko. Eztabaidak ez zuen aurrera jarraitu eta eurek irabazitako partidatzat hartu zuten.

VI.2. Globalizazioaren aurkako mugimenduen erronkak

Lehenik eta behin, gainbegiratu beharko litzateke darabilten antolakuntza modua. Izan ere, asanblearismoak dituen hutsuneak zeintzuk diren jada ezaguna da. Autozentsura ohiko arazoa izaten da antolakuntza era honetan. Bigarrenik, mugimenduaren sare-egitura informalak behin baino gehiagotan zailtasunak eragiten ditu. Hierarkiarik gabeko antolakuntza honetan, aurretik jada aipatu ditugun erreferente mediatikoak ditugu. Mugimenduaren barnean batzuentzat ezinbestekoak badira ere, askok ez dute haien beharra inon antzematen. Gainera, erreferentetzat hartuak izan diren pertsonaia batzuk behin baino gehiagotan salatu dute globalizazioaren aurkako mugimenduek euren izena era desegokian erabili izana. Erreferente horiek alde batera utzita, mugimendu honek ez du lortu hedabideekin dituen harremanak neurtu eta antolatzeko ordezkari legitimorik.

¹⁵ AMI: Acuerdo Multilateral Sobre Inversiones

Horrekin batera, biolentziaren auziaren inguruko eztabaida sakon baten falta nabaria antzeman daiteke. Horrek, kanpora begira mugimenduaren kriminalizazio-prozesuak errazten ditu.

Halaber, proposamen alternatiboak aurrera eramateko sortu izan diren foro eta kontrabiltzarren nolabaiteko saturazioa aurreikus daiteke. Izan ere, arlo globalean aritzeak zentzu osoa galtzen du aurretik arlo lokalean proposamenak eta ekintzak egiten ez badira.

Bibliografia

- Barcena, I. (2003): *Globalizazioa eta ingurumena, Euskal begirada bat*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Echart, E.; Lopez, S. eta Orozko, K. (2005): *Origen, propuestas y protestas del movimiento antiglobalización*. Instituto Universitario de desarrollo y cooperación, Catarata, Madril.
- Eptein, B; Löwy, M.; Panitch, L.; Petras, J. eta Wallerstein, I. (2005): *Movimientos de resistencia al capitalismo global*, Editorial Hacer, Bartzelona.
- Fox, J. (2001): *Chomsky y la globalización*, Editorial Gedisa, Bartzelona.
- Pastor, J. (2004): *¿Qué son los movimientos antiglobalización? Seattle, Genova, Porto Alegre*, Última hora, Bartzelona.
- Ramonet, I.; Chao, R. eta Wozniak (2004): *Abecedario (subjetivo) de la globalización*, Sex Barral, Bartzelona.
- Taibo, C. (2005): *Movimientos de resistencia frente a la globalización capitalista*, Ediciones B., Bartzelona.
- Zuberogoitia, A. (2000): *Globalizazioaren adarrak, Chinook jendea matxinatu zenekoa*, Alberdania, Zarautz.

-
- <http://barcelona.indymedia.org>
 - <http://www.nodo50.org/bcn01>
 - <http://uk.indymedia.org/>
 - <http://es.wikipedia.org>
 - www.seattlewto.org
 - www.agp.org
 - www.attact.org
 - www.ezln.org